

EFSAk baieztatu egin du elikagaietan dagoen furanoa kezkarria dela gizakien osasunarentzat

EFSAREN CONTAM panelak elikagaietako furanoaren arriskua aztertu du, eta ondorioztatu du furanoarekiko eta metilfuranoekiko esposizioak gibelean mina eragin dezakeela luzera begira. Gainera, umeei osatzen dute esposizio maila handiena izan dezaketen herritarren taldea, kontserbako elikagaien edo jateko prest dauden elikagaien kontsumoa dela eta. Herritarren beste talde batzuen esposizioa, batez ere, zereal- eta kafe-aleen bidez egindako elikagaien kontsumoaren bidez gertatzen da, adinaren eta kontsumo-ohituren arabera.

Furanoaren sorrera elikagaietan

Furanoa eta 2- eta 3-metilfuranoaren konposatuak kutsatzaile kimikoak dira, eta elikagaietan berez egoten diren substantzia aitzindariak (besteak beste, c bitamina, karbohidratoak, aminoazidoak, gantz-azido asegabeak eta karotenoideak) berotzean sortzen dira. Horregatik dute kafeak eta kontserbako elikagaiak (izan latakak, bien beirazko potekoak) furanoaren eta metilfuranoen kontzentrazio-maila handiena.

Berotze-baldintzek (egosketak, esate baterako) lagundu egiten dute zehazten zenbat furano hartzen den eta zenbat galdu (furanoa oso lurrunkorra da) eta elikagaiak zenbateko kopurua duten kontsumitzen ditugunean.

Toxikotasuna

Furanoa traktu gastrointestinallean xurgatzen da eta gibelean metatu. EFSA animaliekin egindako azterlan esperimentaletan oinarritu da, eta ondorioztatu du kutsatzaile kimiko horien ingestaren eragin larrienak hepatokotasuna eta adenoma eta kartzinoma sorrera direla karraskarietan.

Nolanahi ere, oraindik ez dakite zehatz nola eragiten duen furanoak minbizia karraskarietan; hortaz, CONTAM panelak ez du ezarri zein den eguneko ingesta onargarria. Horren ordez, esposizio-tartea ezarri du.

Dietaren bidezko esposizioa

Dietaren bidezko esposizioa handiagoa da elikagaietako 2- eta 3-metilfuranoak ere kontsumitzen direnean; izan ere, elikagai askotan 2-metilfuranoaren maila handiagoa da furanoarena baino (adibidez, kafean lau aldiz handiagoa da).

Furanoarekiko esposizioa murrizteko gomendioak

Iritzi honek berotze-praktika egokiak gomendatzen ditu, elikagaien bidez furanoarekiko eta metilfuranoekiko esposizioa murrizteko:

- Hurrek eta umeei kontsumitzeko presta dauden elikagaiak Maria bainuan berotzea, estalkirik gabe, esposizioa % 15-30 murrizteko baitezake.
- Irakindako kafeak (turkiarra) 3 edo 4 aldiz gehiago galtzen du furanoa iragazkiaren bidez egindako kafeak edo kafe espresoak baino.
- Furano-mailak gora egiten du zenbat eta gehiago txigortu eta gorritu elikagaiak; hala ere, ogi txigortuak oso gutxi igotzen du konposatu horren aurreko esposizio orokorraren maila.

EFSAk eta Elikagaien Gehigarrietan Adituen den FAO/OME Batzorde Mistoak [JECFA] ondorioztatu dute dietaren bidezko furanoaren aurreko esposizio-maila kezkarria dela gizakiaren osasunarentzat.

Risks for public health related to the presence of furan and methylfurans in food

(<http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.2903/j.efsa.2017.5005/epdf>)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxes: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)